



TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO FRONTOIKO ERAIKINEAN EGOKITZEKO DEN JATETXEAREN KUDEAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

1.- XEDEA.

Tolosako Frontoi eraikinean egokitzekoa de jatetxearen kudeaketa arautuko duten baldintza teknikoak jasotzea eta arautzea da plegua honen xedea.

2.- JATETXE ZERBITZUAK BETE BEHARREKO GUTXIENeko BALDINTZAK.

2.1.- Jatetxeko jardueraren ardatza euskal sukaldaritza izango da, bai tradizionala, baita berritzailea. Halaber, sasoiko eta kalitatezko produktuak erabili beharko dira, **gutxienez %50ean**

Baldintza hau emakidaren funtsezko gisatzat hartuko da. Beraz, emakidadunak beteko ez balu, udalak emakida amaitutzat eman ahal izango du, emakidadunari audientzia eman ondoren dagokion espedientean.

2.2.- Ezingo da inolako publizitaterik jarri, non eta Udalak ez duen horretarako baimena ematen, ezta jolas-makinarik ere.

3.-JATETXE ZERBITZUA EMATEKO IZENDATUTAKO LANGILEAK.

3.1.- Jatetxe-kafetegi zerbitzuaren plantila 10 pertsonako langile-ratioak osatuko du gutxienez, erantsitako Bideragarritasun Planean zehazten den moduan.

4.- IREKITZEKO EGUTEGIA.

4.1. Jatetxea gutxienez sei egunetan egongo da irekita astean, eta, gainera, atsedeen eguna ezingo da egin ez asteburuetan ezta jai egunetan ere.

4.2.- Ostiraletan eta larunbatetan, eguerdiz eta gauz janari zerbitzua eman beharko da.

5.- ORDUTEGIAK.



Establezimenduaren kategoriari dagozkion ordutegiak ezarriko zaizkio jatetxeko jarduerari.

6.- EUSKARA

Errotuluak, oharrak eta seinaleak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezua ezagunak edo/eta maiz erabiliak direnean edo/eta ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean. Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, beti ere Euskara Zerbitzuarekin alde aurretik elebitasun formula adostuta.

Esleipendunek euskara edota ele biek erabiliko dituzte megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketetan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere. Ele bietako aukera egin behar izanez gero euskarari lehentasuna emanda, baina testua euskara hutsean idatziko da kasu hauetan:

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- Esanahia argitzen duen piktograma batek lagundurik dagoenean.
- Euskarazko hitzak ezagunak direnean.
- Ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak edo/eta jasotzaileen berezitasunek hala eskatzen dutenean.

Jatetxearen karta eta eskaintza ezinbestean euskaraz egon beharko da.

7.- ERAIKINAREN MANTENU LANEN PARTE-HARTZE KUOTA, ELEMENTU KOMUNETAN MANTENU ETA KONTSERBAZIO LANAK.

Jatetxearen lokalak eraikinaren elementu komunen mantentze eta kontserbazio lanetan parte hartuko %50ko kuotarekin.

8.- ZORTASUN-EZARPENAK ETA OBRAK EGITEKO BAIMENAK

Emakidadunak baimena ematen du pasa ditzaten saneamenduko, ura eramateko, berokuntzako, airea erauzteko eta abarretako hodiak, beharrezkoak direnak kafetegia jarduera hartu behar duen beheko pisurako. Baldin eta jatetxearen jarduera esleitzen ez



TOLOSAKO
UDALA

bada, Udalak beharrezkotzat jotzen dituen sareak edo eroanbideak jarriko ditu lokala egokitzeko obra egiterakoan. Nolanahi ere, bi jarduerak behar desberdinak badituzte, Udalak erabakiko du lehen aipatutako sare horiek non kokatu.

9.- OBREI DAGOZKIEN PRESKRIPZIO TEKNIKOAK.

Hauek, esleipendunak aurkeztu eta Udalak onartuko duen obra proiektuan jaso beharko dira.

Lizitatzailerak aurkeztu behar duen aurreproiektuak ondorengo dokumentazioa jaso beharko du :

- a) Memoria bat, honako alderdi hauek deskribatuko dituen: obren xedea, aurrekariak eta obren aurreko egoera, bete beharreko beharrezkoak eta hartutako soluzioaren justifikazioa, kontuan hartu beharreko era guztietako faktoreak zehaztuta.
- b) Aurreproiektuko sestra gaineko planoak (oinplanoak, altxaerak eta sekzio orokorrak); horietan adieraziko da programa nola ezarriko den lokalaren barnean eta inguruan.
- c) Obrako plana, eta hor jasoko dira gauzatzeko epeak, nola exekutatu den eta obra horiek gauzatzeko izango duen kostuaren ebaluazio ekonomikoa.
- d) Aurrekontua, kapituluz kapitulu xehakaturik, estimazio bat aurreratzeko.
- e) Proiektuen idazketarako metodologia eta epeak, obraren exekuzioa eta epeak.
- f) Lanen garapenerako programa edo obraren plana, argibide gisa, horrela badagokio, denbora eta kostua aurreikusita.
- g) Eraikuntzaren eta ekipamenduaren ezaugarriak. Horri begira, gutxi gorabeherako Ekipamendu-proiektua aurkeztuko da, eta osoa izango da.
- h) Aurrekontua xehakaturik.